




Soraluzeko
Udala

MARI DOMINGI
OLENTZERO

Urte barri, txarri belarri, daukanak ez daukanari, ekarri!!



- **Urtekaria:** 2008 urteari gainbegiratua
- **Kultura:** Gabonetako ekitaldien gida

soraluzeko
hamabostekaria **190.** alea
2008ko abenduaren 19an

pil-pilean



**Karmen eta Martina
Sasoiak ez dauka adinik**

GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



**Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak**

Ordutegia:

8:00etatik 21:00etara (oin ez dabe ixten)

**Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022**



Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



SORALUCE, S.Coop.
Osintxu Auzoa
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 76 90 76
Fax. +34 943 76 51 28
E-mail: soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com



PLACENCIA

KONTSUMO KOOPERATIBA

Esku eskura ! Telf.: 943 75 13 45

Belarrak

Loradenda eta belardenda

T. 943 75 30 11



ELIZPE

Hortz Klinika
GURE ZERBITZUAK
Ortodontzia ikustezina
Implanteak

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tifonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Etxabe Harategia



Euskal txahalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 2375

Aras

DIN arauak jarraituz
eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 18 03
F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21
50 Posta Kutxatila
20590 Soraluze

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

JABIER ALBERDI

HARATEGI ARTISAU ERARA ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



ERREBAL KALEA 24

T. 943 75 19 32

**DOMENTX UZIN****JON BASAURI**

ATERTU HADI BEHINGOZ

Kaixo JonBa, Heldu dirala berriz gabonak! azkar pasatu da urtia ezta? Betiko sentzazino berdintsuekin heltzen gara sasoi honetara. Beste urte bat. Lehen polikixago pasatzen zan denboria, edo egunak, astiak, bizipen ezberdinez beteaguak zeren, oin osteria egun berdintsuak askoz gehixago dira egun berezixak baino... eta urtien joan etorrixak holako nostalgia bat lagatzen dau, gabonetan bereziki pizten dana. Urte aldaketa, bizi ikuspegi gordinagua aukera anitzen gizarte honen tranpa agerixan utziz... Familixiak batu ohi gara eta gure artian ez darenak be gogoratzen dittugu. Urteko balantziak egitten hasten gara nahi bare. Oporretan nun egon garan, momentu gogorrik eta beste hainbat oroitzapen alai edo goxo. Hein haundi baten horretxek dira opari, janari eta edari mordo batekin betetzera eramaten gaittuen sentipenak, ez dozu uste? Betetzeko antsia ezkutuak. *“Crecimiento Insostenible”* honek aurrrian ipintzen doskun aukera supersolidarioak aprobetxatuz, egun batez bizitzan guztiz zoriontsu gara sentitzeko supermerkatu bonbardaketa gupidagabea! Naturako ziklo zaharreri kaso asko egin bare pasatzen dira egunok, eta kartoizko erritu kristauak eskusa hutsa dirala konturatu bare moduan. Gero gabonak lehen aldiz biziko ditzuzten haurrak datoz, eta Gurasuak umian bittartez aseko dau bere ilusio zaharra.

Animo eta guzti honen alde xumeagaittik topa!



“

Egun berdintsuak askoz gehixago dira egun berezixak baino

Domentx Uzin

40 urtekoen krisia aurreratu ete jakuk?

Jon Basauri

”

Gabonette, Do! Umiak beldurtuko dituk, Satanas! Olentzeroren trajia erantzi duanetik mingaina majo zorroztu dok, eh! Bueno hi, badakik ezta? haudok gure azkenengo Pil-pilean atariko face to facea, eta ezer baino lehen esatia nahi juat plazer bat izan dala hirekin jardutia. Nik be hire moduan pentsatzen juat, bai, urtia azkar joan dala; bajirudik atzo zala gabon-gabonete erros-errosete haura idatzi genduan eguna. Eta esan duan beste hori: *“egun berdintsuak askoz gehixago dira egun berezixak baino”*, xoder!! zelan sentidu doten! ni be hola nabik ba aspaldixan, nere bizitzan gauza emozionante gutxi gertatzen danan sentsazioarekin. 40 urtekoen krisia aurreratu ete jakuk? maitemindu egin beharko gaituk atzera. Horren modukorik ez dago monotonia hori apurtzeko. Gertazen denean egunak ez dituk berdinak izaten, ibiliko haiz gaur gailurrean eta bihar putzu sakonetan, bizipen eta sentsazio berriez blai. *“A lo loco se vive mejor”* esaten juek eta holan pentsatzen jarraitzia nahi dot. Hala eta be, tamalez, maitasuna angulak baino garestiago dago amodioaren merkadilloan, *“amorkadilloan”*.

Hor bai egiten ditugula tranpak!! JOJOJO!!! (*Papa Noelen barreagaz*). Baina *“dena ez da ilun”*, ezta Domi?. *“Begira zazu lehiotik, ikustazu zelai hori berdatzen...”*. Euriarengatik izango da, barkatu haurrok, badakizue azken bi hilabeteetan ez duela atertu eta horrek Do eta bixok jota laga gaituala.

Gabon zoriontsuak eta urte barri on danori!



Goguan hartzeko

Igaroa igaro eta etorkizuna, kontakizuna!

Euskal atsotitzak



Urtebete
Galduta

GUTUNAK

2008ko urtea amaitzear dagoen hontan EAJko Udaletxeko taldeak Udal Gobernuak urte honetan zehar egin duen kudeaketaren inguruan, honako hausnarketa egitea nahi du: Lehenik eta behin adierazi nahi dugu 2008ko urtean lehen aldiz Sorluzen Udal Aurrekontua ez dela onartua izan. Udal gobernua osatzen duten Ezker abertzalea eta EA ren negoziatzeko borondate ezaren ondorioz. Horregaitik ondorengo adieraztea nahi dugu:

- Erregetxeko aparkalekuak: Udalak argitaraturiko aldizkarian udazkenean emango zuela proiektueran berri adierazi zuen. Gaur da eguna honen inguruan proiektu zehatzik ez duela mahai gaineratu.

- Alde Zaharraren zahar-berritzea: Erregetxeko aparkalekuekin lotuta dagoen proiektua dugu. Bai Plaza Zaharra, Etxaburuetako eta Erregetxeko urbanizazioa exekutatzeko, pentsatzen dugu aparkalekuen proiektuari heldu behar zaiola.

- Kiroldegiko gaina: Lan hauek amaitu ondoren gure taldeak bertan, Gazteleku berria egitearen aldeko proposamena egin du, baita erabilera anitzetarako gune bat ahalbidetzearen aldekoa ere.

- Zinearen proiektua: Proiektu honen inguruan ere ezer gutxi dakigu. Gure apostua, kiroldegiko lanak amaitu ondoren gune honetako lanekin hastea da.

- Futbol Zelaiaren proiektua: Jakinekoea da herritarren aldetik Futbol zelaiaren egoera nolakoa den. Gure taldeak hauteskunde kanpainen Futbol zelaiaren zahar-berritzearen alde agertu zen eta honen inguruan lanean jarraituko dugu.

- Kultur-Etxea: Hauteskunde kanpainen alderdi politiko gehienek proiektu honen aldeko apostu garbia egin zuten. Urtebete eta erdi igaro ondoren ez daukagu proposamen zehatzik.

Ikus dezakegu, besteak beste, gure ustetan zeintzuk diren Sorluzerentzat lehentasuna daukaten proiektuak. Ordua da Udal Gobernuak udalaren erantzunkizuna beregain hartzekoa. Horregaitik, adierazi ditugun proiektuen alde lan egiten jarraituko dugu Udaletxean, 2009 aurrekontuetan hauek izando dira eta guk egingo ditugun ekarpenak. Ea oraingoan Udal Gobernuak balizkotzat hartzen dituen gure taldeak eginiko ekarpenak, gure helburua Sorluz eta Sorluzetarrak dira eta. Besterik gabe Gabon eta Urte berri on bat igaro dezazuela!

Sorluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

**Krisiaren
aurrean,
guregana
ditzagun
eskubide
sozialak**

Sistema Kapitalista krisian sartu da. Orain arte, langileria prekaritatean bizi bazen, hemedik aurrerageroz eta gehiago: lanordu asko, azpikontratazioak, ordu extrak, lan erritmo intentsiboak, lan istripuak... Gainera, Euskal Herrian 500 000 langilek pobreziaren mugaren azpitik dauden soldatak daukate.

Prekaritatea, ordea, ez da lan munduan bakarrik ematen: milaka pertsona pobreziaren mugaren azpitik dauden pentsioekin bizi da (alargunak, jubilatuek, langabetuek). Oinarrizko zerbitzuak (argia, ura, garraioa, zabor-bilketa) pribatizatuta daude eta bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren menpe gelditzen dira. Zorpetzeak geroz eta handiagoak dira, lan esplotazioaren aurrean jarrera geroz eta sumisoagoak ahalbidetuz; diru publikoa gastu sozialean inbertitu beharrean, azalera handiko eraikin eta makroproiektuetan gastatzen da (AHT, Superportua) eta geroz eta gehiago kontsumitzen dugu, ondorioz, gero eta zikinkerki gehiago pilatzen dugu. Etxebizitza, eskubide bat izatetik luxu bat izatera pasatu da; ia ez dago alokairuko etxerik ez eta irtenbide errealek arazoari aurre egiteko.

Guzti honekin jendea gero eta zorpetze handiagoe-kin eta bizitza duin bat aurrera eramateko ezingabetasunarekin aurkitzen da, lanaren aurrean jarrera sumisioa azalduz. Sistema Kapitalista kolokan jartzen du aipatutakoak.

Eta honen aurrean zer egiten dute patronalak eta politikariek? Legedi berriak medio esplotazio kotak handitu edota diru publikoa beraien negozio pribatuetara pasatu. Langileriaren gain jarri nahi dute krisiaren ardura; irabazi handiak egon direnean beraien interesen arabera pribatizatu dituzte eta galerak datozenean sozializatu behar direla diote.

Irabazi tasak handitzean besterik ez dute pentsatzen eta hartu nahi dituzten neurriak hauek dira: lan kosteak murriztu, astean 65 orduko lanaldiak jarritz eta jubilatze-ko adina gehiago luzatuz. Diru publikoa interes pribatuetan inbertitu, adibide gisa AHTa. Eraikuntzako sektoreari laguntzeko, BOE (VPO) etxe gehiago egin, baina prezioak igoz; gero eta epe luzeagoko hipotekak eskaini eta sozietate eta jabegoaren gaineko zergak jeitsi.

Beraien apostua sistema kapitalista berpiztu eta irabazien tasa errekuiperatzea da, langileria zapalduz. Honen aurrean gizarte aldaketaren alde egin beharra daukagu, non pertsonok bizibaldintza duinetan bizitzeko aukera izango dugun.

Gure eskubide sozialen alde borrokatzeko garaia da, prekaritatearen aurkako harresi bat egin dezagun, eskubide sozialak geureganatzeko.

SORLUZEKO ELKARTZEN

PIL-PILEAN

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluz, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzardea:** Leire Iturbe, Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartea ez du bere gain hartzen aldizkari-ko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORLUZEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Markel Arizaga

OINGUAN BAI?

“Oinguan bai”, “hilabete batzuk barru sartzen dira makinak”, “datorren urterako eginda dago”. Pentsatzen jarritta ezin dot gogoratu noiztik gabizen holakuak entzuten baina gutxienez nere kadete denboretatik bai, eta harek lekutan dare.

Zurumuru bakoitzeko desengainu bat egon da orain arte. Lehenengo Diputazinuak dirua ez dabela ematen, gero dirua Udalletxiari falta jakola, berandua Udalak dirua izan bai baina adostasunera heltzeko inkapazak diranez...

Amorrua ematen dau egunero Bergarako futbol zelai berrixa ikusi eta gero Ezoz bidetik gorajuan eta bertan daguana ikustia: eurixa daganian potzuak, eguzkixa daganian hautsa, dutxetako ura hotza, argixa jun eta etorri... Inobezek ez dau ukatuko bertan ibiltzen garan taldietako jendeak meritua badakagula. Gero, gainera, futbolian ez daki-gula entzun bihar. Nola jakingo dogu ba, Soraluze futbol zelarik ez badakagu?

Jakina da herri honetan ganorazko ekimenak mantentziak kostatzen dabena (*Atxa Memoriala gogoratzen?*). Goazen ba egin bihar diran gauzak egittera. Badakizue, aurten Olentzero-ri belar artifiziala eskatu.

((ENTZUTEKUAK))

Herriko txistulariak elkartu eta indarrak batzen hasi dira

Noiztik biltzen zarete?

Instrumentuakin lehenengo aurreko barixakuan. Lehenago bileratxo bat egin genduan, danon artian zerbait adosteko.

Zegaittik?

Herrixan txistua jotzen daberen jendia betidanik egon izan da. Txistua etxian eduki izan dogu beti baina. Garai baten urtetzen zeben, baina jenerazino arteko loturarik ez da egon, eta guk etxerako ikasi genduan, ez kalera urten edo emanaldixak egitteko. Ez dogu erreferenterik edo talderik izan albu.

Biharrak be badare. Dantza taldian esaterako txistulari premanan dare, eta musika eskolan be gazte bakarrak dihardu txistua ikasten. Hasiera baten horrek batu ziran eta ostian txistularioi pasatu zoskuen deialdixa.

Zenbat biltzen zarete?

Hasierako batzarrak lehenengo entsaiuak baino arrakasta gehixago izan zeban. Izen zerrenda politta osatu zan, baina lehenengo entsaiuan hiru bakarrik batu ginan.

Zein da zuen asmua?

Momentuz txistuari hautsak kentze aldera, gure artian batu, pieza batzuk jo eta disfrutatzea. Gerora ikusiko da zer egin nahi dogun, batzen garanok ikusiko dogu egun jakin baten kalejiran urten nahi dogun, kontzupian edo tabernarik taberna.



Nola ikusten dozue, Soraluzeko txistularitza?

Txistularixak mordo bat bagare, baina azken urtietan gero ta gazte gutxiago animatzen da ikastera; beste instrumentu batzuk gehixago erakartzen dittue itxuria. Gainera, kalia ez dago txistuan presentziarik eta entzuten eta ezagutzen ez dana gustatzia zaila izaten da.

Soraluzen badago txistua jotzen ikasteko aukerarik? Nun?

Badago bai, Musika Eskolan.

Zer bihar da txistua ondo jotzen ikasteko?

Beste edozein instrumentukin moduan, jotzia da bihar dana. Ondo jotzen jakin, eta lagatzen badotsazu ahaztu egitten da! Musikarako, belarri fina, erri-tmua,.. izatiak beti laguntzen dau. ☺

**Txistuari
hautsa
kendu nahi
dotsagu**

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

**TXOKO
KAFETEGIA** 

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. T. 943 75 17

Biribiltxoren argazkiekin osatutako egutegia salgai



2009ko egutegiaren azala.

Kontrargi Argazki Kolektiboak, Pil-pilean Euskara Elkartearen laguntzarekin, kaleratu berri du Angel Bolunburu "Biribiltxo"ren argazkiekin osatutako 2009rako egutegia.

Egutegia, Biribiltxoren bildumatik aukeratutako 13 argazkiekin osatu dute.

Herriko bizitza argazkitan

Aukeratutako argazkietan, Erregetxea, Kañoi Fabrika, Anjelenuka taberna edo Mantxo basarriaren irudiak azaltzen dira, eta baita, Maria Teresa andereñoa ikasleekin eta Don Ramon apaizak gidatutako gogo jardunak ere, besteak beste.

Garaiari dagokionez, denak joan zen mende hasierako argazkiak dira uste da eta gehien-txuenak 30. eta 40. hamarkadan ateratakoak.

Egutegia salgai dago dagoeneko Iratxo goxodendan eta Pil-pilean Euskara Elkartean 3 eurotan. Egileek ohartarazi dute ale kopurua mugatua dela.



Olentzero eta Mari Domingiren bisita

Aurte ere Plaza Barrixan pinu eta bonbilen ordeztan Olentzero eta Mari Domingi jarri dituzte gabonak direla aditzera emateko. Baserriko tresna eta jakiak ondoan dituztela, estalpe dotorean hartu dute lekua.



KZguneak urtarrilean ordutegi berria izango du

Abenduaren 19tik urtarrilaren 6ra KZgunea itxita egongo da Gabonetako oporrak direla eta. Urtarrilaren 7tik 30era aldiz, astelehenetik barixakura arratsaldean egongo da zabalik; 16:00etatik 20:00etara. Hauek dira hilabetez emango diren kurtsoak:

Internet

Irudi digitalen tratamendua I
Zure egunkaria irakurri

Postal bat bidal ezazu

Irudi digitalen tratamendua II
Komunikatu posta elektronikokoaren bidez


Olio bilketa egiteko egun aldaketa

Hilaren lehenengo ostegunean Erregetxean egin ohi den etxeetako olio bilketa, datorren urtarrilaren 8an izango da, lehendabiziko eguna Urteberri eguna delako.

Oparitu euskaraz



Gabon hauetan ere, azken urteetan moduan, Euskal Herriko hainbat Udalek euskarazko produktuen katalogoa argitaratu dute. Soraluzeko Udalak ere badu berea eta bertan, jostailuak, jokoak, liburuak, aldizkariak, bideoak, musika, informatika, produktuak, filma arrakastatsuak eta gurasoentzako materiala agertzen dira.



Gabalatz, 5-B Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jlibarza@infonegocio.com



Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10



MENDIZABAL okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Pentsioak osatzen laguntzeko bigarren hitzaldia



Abenduaren 16an bigarren gozoki egina osatzen laguntzeko hitzaldia. Lehenengo, duela hilabete bat Itzaropena elkartearen izan zen eta 60 lagun inguru bertaratu ziren. Honen arrakasta ikusita, Udalak bigarren bat egitea erabaki eta oraingo honetan 20 lagunek parte hartu zuten. Hitzaldi hauen helburua, pentsioak osatzen laguntzeaz gain, Gizarte Zerbitzuak eskaintzen dituen bitartekoak aditzera ematea da, behar duenak nola erabili jakin dezan.

Gabonetan goiko bialak norabide bakarra izango du

Abenduaren 24ko lehenengo orduetik abisua eman arte, Oleatik Ezozki biderainoko bidea norabide bakarra izango du Gabonetan egingo diren ekitaldiak direla eta aparkaleku gehiago izateko asmoarekin. Bestalde, abenduaren 24an eta 3an goizetik, erdigunea peatonalizatu egingo da, kotxeen trazarik ez izateko.

Herrian bi igogailu gehiago izateko proposamena onartu da

Azken Osoko Bilkura aho batez onartu zen Foru Aldundiak eskaintzen dituen dirulaguntzekin herrian bi igogailu gehiago jartzeko proposamena. Lehenengo Plaza Zaharretik Etxaburuetara igotzeko izango zen eta bigarrena, Goiko Eskola ondotik Hilerrira.

444. 466 euroko kostua guztira

198. 070 euro balioko du lehenengo igogailua jartzeak eta bigarrenak 246. 396 euro. Foru Aldundiak dirulaguntzak ematea onartzen badu, hurrengo urtean hasiko dira hauek burutzeko lanak. 🌱



 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**
Hotzian eta beruan jotako tornilluak
Errekalde 21 20590 SORALUZE
T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

HNOS. BENITO ANAIAK 
Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe
T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26 , 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
GOSARIAK ETA PINTXO GOXO GOXUAK 
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

MARE ILEAPAINDEGIA  **ESTETIKA SOLARIUM**
Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE




Banketxe honek badaki euskaraz

Herriko banketxe batek jarritako oharra da irudikoa. Banketxe horrek badaki euskaraz edozer komunikatzeko balio duela.



Euskara jolasetik kanpo

Jolasak batu eta gero hezteko erabiliko dituztela dio oharrak. Nola liteke hezkuntzan pentsatzen ari denak ume eta heldu euskaldunak gogoan ez izatea Soraluze bezalako herri batean?



Zer egin?

Euskarazko testuen itzulpena doan eta berehala

“Euskarazko testuak gaztelerara pasatzeko tresna jarri dabe interneten. Itzulpenak ez dira perfektuak baina bai bizkorrak. Egin aproba!”

Interneten lagungarri diran tresna asko dago eta Erdaratu.eu da horretako bat. Tresna honek euskarazko testua gaztelerara itzultzen dau istante baten. Tresna honen bittartez euskaraz ezer ulertzen ez dabenak aukeria dauka testuen mezu orokorraren berri izateko. Ez zehatz mehatz baina bai gutxieneko bat. Etorkizunian gazteleratik euskarara itzultzeko tresna kaleratuko dabela adierazi dabe egiliak.

<http://www.erdaratu.eu>



BEHERA

EUSKARAZ BIZITZEARI BAI!

Kontseiluak BEC-en abenduaren 13an egin zuen ekitaldian milaka lagunek bat egin genuen 'euskaraz bai' leloarekin. Euskararen oreka hauskorra modu artistikoan irudikatu zen Bizkaia Arena aretoan. Ikuskizunean, besteak beste, ekilibristek, Xabi Paia bertsolariak, Kirmen Uribe idazleak, Elena Irureta, Asier Hernan-

dez, Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreek ere parte hartu zuten.

“Euskaraz bizi gura dugu” esanez eman dio hasiera Kontseiluko idazkari nagusiak bere mintzaldiari. Kontseilua osatzen duten 46 euskararen gizarte erakundeetako ordezkariekin itxaropentsu agertu da Xabier Mendiguren: “Asko

gara, eta asko egin dugu, gau-ekoletatik blogosfera euskaldunerako bidean hamaika izan dira pausoak”. Horrekin batera, euskararen alde egotea ez dela nahikoa azaldu du, are gehiago, konpromisoak “bakoitzaren erantzukizunetik” zehaztu behar direla.

Euskaraz bizitzea aukeratu dugunok badugu zer egin!

Zulotik
begira15 Urterekin
bizitzak eskaintzen
dituen gauza
txarrak:

DIRU ESKASIA

Hamabost urterekin bizitzak eskaintzen dituen gauza txarren artean diru-eza ageri da. Gaur egun gazteok ikusten dugun guztia, nolabait esateko, gure eskuetan izatea nahi dugu, baina ez da posible izaten ez garelako nahiko helduak. Mugak alde guztietatik aurkitzen ditugu: mobila errekaratzerakoan, inguruko herrietara juergara joaterakoan, Gabonetan opariak erosterakoan, eguneroko gauza sinpleak eskuratzeke; goxokiak esaterako... Gainera, orain produktu guztien prezioak igo dira eta ez da batere lagungarria diruz gaizki dabilenarentzat. Laguntzaren bat edo beste ondo etorriko litzaiguke...

ESKOLA

15 urterekin bizitzak eskaintzen dituen gauza txarren artean, bat eskola da. Badakigu azken batean gure onerako dela eta, etorkizunean, erabilera handia emango diogula ikasitakoari. Baina, hala ere, molestatu egiten du. Adibidez, goizean goiz jaiki behar izateak egunero eta hori gutxi balitz, sei ordu luze egotea gelan sartuta irakasleen txapada guztia entzuten. Gainera, sei ordu horiek gutxi badira, etxekolan gehiegi bidaltzen dizkigute egunero eta azterketak ditugunean, presio oso handia jasaten dugu. Askotan, gurasoak ere gure ikasketetan sartzen dira eta oso esfortzu handia exijitzen digute. Honek guztiak kalte egiten digu eta, horregatik, gauza negatibotzat hartzen dugu.


HERRIAN
EZ DAGO EZER

Herri honetan dauden gauza txarren artean, herrian ez dagoela ezer hamabost urteko gazteentzat da. Dirudinez, pertsona nagusientzako eta ume txikiendako pentsatuta dago herria. Askotan proposatu izan da skate park edo zinea jartzea. Baina ez digute ezer jartzen. Beraz, gure dibertsio bakarra, gaur egun, lokaletan egotea da. Baina hori ere ez dago guztion eskuetan, gutxik baitute aukera hori. Izan ere, ez dago nahiko lokalik eta, jakin, hamabost urtekoak ez daukagu nahiko dirurik.

KOTXEKO GIDABAIMENA
EZ IZATEA

Hamabost urterekin bizitzak eskaintzen dituen gauza txarren artean kotxeke gidabaimena ez edukitzea dago. Kotxeke gidabaimena ez edukitzeak esan nahi du ez daukagula garraio biderik beste herrietara joateko. Kontuan hartu behar da Soraluzen ez daukagula trenik eta autobus gutxi pasatzen direla.

Hori gutxi balitz, hamabost urteko gazteek ez daukagu ezer egiteko herrian. Guztiok gaude kallean zer egin jakin gabe.



Biribiltxoren egutegia salgai

Prezioa:
3 euro (euro 1 bazkideak)
Salgai:
Iratxo eta Pil-pilean Euskara Elkartea



Laguntzailea:



Egilea:



2009

Soraluzeko Egutegia Biribiltxoren argazkiak



Otsaila

Artekak	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Irakatsia	Domingua
26	27	28	29	30	31	1	2
3	4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31	1	2	3

Oharra: Pil-pilean Euskara Elkarteko bazkideek egutegia euro baten jaso ahal izango dute. Horretarako, pasatu elkartetik, deitu edo idatzi.

25. URTEURRENA (1983-2008)

Gabonetako bertso jaialdi berezia

Elgoibar

Xabier Amuriza
Andoni Egaña
Unai Iturriaga
Maialen Lujanbio
Uxue Alberdi
Beñat Gaztelumendi

Gai-jartzailea: Saroi Jauregi

Abenduak 26, ostirala
Herriko Antzokian
22:30ean

Prezioa: 9 € (6 € Elgoibarko Izarrako bazkideek)
Sarreraren aurre-salmenta Elgoibarko Izarran
(abenduaren 23ra arte)

Antolatzailea:



Laguntzaileak:





PIL-PILEAN

Herrixa danon artian etara bihar dogu aurrera, politikari eta herritar
Jose Luis Arrese "Txipi"
SOLAKI BERRIEN ALBATEA



PIL-PILEAN

Baserriko esnea, bada oraindik



PIL-PILEAN

Aratusteak 2008
Mozorroak jantzita giroa berotzen



PIL-PILEAN

Gazte txak euskaraz:
Batuakite, baina badarabilite?



PIL-PILEAN

Pilotakadak eta gainontzekoak txapelerainoko bidean




PIL-PILEAN

Gure kutsadurak itota



PIL-PILEAN

Argazki zaharrak kaxetatik internetera
JUANMA BERRUETA, argazkilaria



PIL-PILEAN

Pedalekeraginez bidean gora
MIKEL HERNANDEZ



PIL-PILEAN

Minbizia gaudituta, bizitza besarkatzen
SOCORRO URTARTE




PIL-PILEAN

Hau markia izango juau horraitio!
Ur-agorra Eskola-igesi **Irittia**
Eskua txanbututa **tulia**
Lasta azuak **HARPASUAK**
Mandara **EGON HARI POLIKI!**
Graziak! **Intsopia** Ganajatekuak egin
Ez najuan asko **Abutsa**
esango! **ukalx** Kokoak beteta
HODIA NESKA MARTIKIA
Txanala **Eskirola**
inore **Oineztarrixak jo**
Noiztik behintan **ihotu** **Etxia gorri**
LEKU EDARRIAN GABIZIK!



PIL-PILEAN

INAKI DE MIGUEL
Egurrezko monumentu zaharrak berritzen jardundakoa



PIL-PILEAN

Petrolioaren menpe, baita elikatzeko ere



PIL-PILEAN

"Ostruketatik dan-dana aprobeztatzen da"
AMAIA BOLUNBURU, ABELTZAINA



PIL-PILEAN

Jaiak martxa onean



PIL-PILEAN

Kaleko baserriak



PIL-PILEAN

Ezagutzen, ez dena ezin da maiztatu



PIL-PILEAN

Krisia badator?



PIL-PILEAN

Gaztañerre azoka
Baserriaren etorkizuna lantzen



PIL-PILEAN

Kukumiko, txikien laguna



PIL-PILEAN

Lahengo sasoiak, Biribillxoren begitik



PIL-PILEAN

Merkatariek indarrak batzen



PIL-PILEAN

Karmen eta Martina Sasoiak ez dauka adinik

PIL-PILEAN

2008 URTEKARIA

2008 URTEA ARGAZKITAN



01 Urtarrila

Laskurainen Lagunartea: 150 lagun inguru batu ziren Laskurainen Lagunartea osatzeko. Kamisetak, karnetak eta elkarteari buruzko argibideak jaso zituzten eta partiduz partidu, pilotariari animoak ematen jardun dute.



02 Otsaila

San Blas opilen I.lehiaketa: 100, 50 eta 25 eurotako sariak banatu ziren eta Teresa Arizaga izan zen irabazlea. Bigarren lekuan Maria Anjeles Zabala geratu zen eta hirugarrenean Mertxe Arenaza.

03 Martxoa:

Ibaian ehundaka arrain hilda: martxoaren 12an ehundaka arrain hilda agertu ziren Deba ibaian. Ustez, aurreko egunetan izandako euriteak aprobetxatuz egin zuen isurketa toxikoa enpresaren batek.



04 Apirila:

Udal aurrekontua ez zen onartu: Apirilaren 21eko ez-ohiko Udal Batzarrean Gobernu taldea osatzen duten EAE-ANV(3) eta EA(2) alderdiek baiezkua eman zuten eta EAJ-PNV(3), PSE-EE(2) eta PP(1) alderdietako zinegotziek aldiz, ezezkoa.



05 Maiatza:

Mozio "etikoak": Jendez betetako Udalbatzarrean PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiek aurkeztutako mozio "etikoak" aurrera egin zuen, oposizio botei esker. EAJ-PNV(3), PSE-EE(2) eta PP(1).





06 Ekaina:

Ahotsak-en aurkezpena: Badihardugu Euskara Elkarteak sortutako proiektua ekainaren 11an aurkeztu zen. Soralezuko adineko jendea elkarrizketatu eta euren euskara eta bizipenak jasotzen dira proiektu honetan.



07 Uztaila:

Sorako nesken futbol taldea: Sora nesken futbol taldea sortu zuten uztailean. Gaur arte jokatu dituzten partidu guztiak irabazi dituzte eta lehengo postuan daude sailkapenean, 33 punturekin.



09 Iraila

Zaintza zerbitzua: Goizeko 7terdietatik 9etara eta arratsaldeko 14:30etatik 16:00etara lehen hezkuntzako eskolan zaintza zerbitzua egiten hasi ziren. 17 umek inguru eman zuten izena hasieran eta Josune Unamuno da zaintza zerbitzuko arduraduna.

10 Urria

Pil-pileanek egoitza berria: Urriaren 3an Pil-pilean Euskara Elkartearen egoitzari hasiera ekitaldia egin zitzaion. Ospakizunik ez zen falta izan. Etxapiluru batekin eman zitzaion hasiera ekitaldiari eta kantak eta brindisa ere ez ziren falta izan.



12 Abendua

Biribiltxoren argazkiak: Kontrargi Argazki Kolektiboaren eskutik, Anjel Bolunburu "Biribiltxo"ren argazkiak ikusteko aukera dago Kiroldiegiko Erakusketa aretoan. 60 argazkik osatzen dute erakusketa, Kontrargik sailkatu, izendatu eta aukeratu dituenak.

11 Azaroa

Hitzaldiak: Gaztañerre azokarekin batera hainbat hitzaldi entzuteko aukera izan zen, "Baserriak eta gazteak etorkizunari begira" mahai inguruarekin eman zitzaion hasiera gitarraari eta hurrengo egunetan, "Hitzez, emakume baserriaren taldea" eta "Euskal Herriko Hazi Sarrea"ren hitzaldiak entzuteko aukera egon zen hurrenez hurren.



Euskararen basoak
gure berbei esker
argitzen, zabaltzen,
berritzen, hazten dihardu.

Eman hitza euskaraz,
eman argia basoari.

Katukale

Argi urte berri on!

Pil-pilean Euskara Elkarte





Karmen Kerejeta eta Martina Zubizarreta

Adinak ez duela barkatzen esaten da, baina ez beti. Karmen eta Martinak 84 eta 87 urte dituzte hurrenez hurren eta astean hirutan joaten dira soinketa egitera kiroldegira.

1-Noiztik egitten dozue kirola?

2-Eta gaztetan, kirola egitten zenuten?

3-Zertan egitten dotsue on kirola egittiak?

4-Zenbat aldittan juaten zarie kirola egittera?

5-Dieta bereziren bat jarraitzen dozue?

6-Kirola egittiak bizitza luzatzen dau?

MARTINA ZUBIZARRETA, 87 urte

1- 66 urtekin hasi nintzan kirola egitten eta guztira, 21 urte daroiaguz kiroldegixan.

2- Zeozetan hastiagaittik eman genun izena eta oso ondo gabiz. Gure adinian denbora zeozetan pasatu bihar dogu eta!

3- Ez, gaztetan ez zekagun kirola egitteko aukerarik baina izena eman genunetik ez dot faltatu inoiz klasieta.

4- Astian hirutan egitten dot kirola. Bi aldiz frontoian biltzen gara mantentze-soinketa egitteko eta behin igerilekuan. Azken honekin, indarra lantzen dogu batez be.

5- Ez! normal-normal jaten dot nik etxian. Txokolatia agian...

6- Bai eta nere adineko jendia edo gaztiagua dana animatuko neuke gure moduan soinketa egittera, urtiak ematen dao eta! Burua bizkortu egitten da eta gainera oso ondo pasatzen dogu; hamarretakuak egitten dittugu noizian behin eta lagun artian holan ibiltzia plazer bat da.



Nere adineko jendia edo gaztiagua dana animatuko neuke gure moduan soinketa egittera

KARMEN KEREJETA, 84 urte

1- 63 urtekin hasi nintzan Kiroldegira etortzen eta oin 84 ditudala oso gustora jarraitzen dot. Guztira 21 urte segidan nabil soinketa egitten.

2- Gaztetan ez genun kirola egitteko aukerarik. Ez zeguan Kiroldegirik ezta kirola egitteko bestelako aukerarik. Batzutan eskolan.

3- Danian egitten dit on kirola egittiak. Uda iristen danian eta oporrak datozenian pena ematen dosta. Hila-betez ezer egin gabe azkenian igeritzen dot gogortuta naguala eta ez jata horrela egotia gustatzen. Ibiltzeko, makurtzeko... mobitzeko azken finian.

4- Astian hirutan egitten dogu soinketa. Bi aldiz frontoian biltzen gara gorputzeko atalak eta koordinazinua lantzeko eta baten igerilekura. Hemen, frontoian egitten dittugun ariketak lantzen dittugu baina ur barruan indar gehixago egin bihar da.

5- Ez! Etxian danetarik jaten dogu eta hau izango da agian gure sekretua. Dieta osasuntsua danetarik jaten lortzen dala uste dot.

6- Noski baietz! hezurra mobitu egin behar da, gorputza ahal dan eta gehixen landu eta ariketak egin. Nere etxian ni naiz etxeko lanak egitten dittuana eta hau be kirola egittia modukua da. Kirola egin gabe gorputza gogortu eta burua makaldu egitten da eta gure adinian ez da komeni!



Kirola egin gabe gorputza gogortu egitten da eta burua makaldu

Uga ra xo



Uga ra xo Al bis tea

365 EGUN EUSKARAZ

Egunero

3 jatordu egiten ditugu
6 + 3 = 9 ordu baino gehiago lo egiten dugu
5 ordu gutxienez eskolan

Astero

3 jai egun izatea nahiko genuke
6. egunean, zapatuan, eskola kirola dugu
5 eskola egun ditugu

Urtero

3 aldiz oporrak ditugu
6 x 2 = 12 hilabete ditu urteak
5 ospakizun baino gehiago ditugu

Gelan

3 arlo desberdin ditugu goizero
6 saio ditugu egunean
5 apal-armairu daude

Ikastetxean

3 solairu ditugu
6. mailaraino ikasten dugu
5 maisu ditugu

Etxean

3 ohe daude gutxienez
6 eskilara maila daude igotzeko. Horixe baietz!
5 ate daude gutxienez

Kalean

3 goxo denda daude
6 zuhaitz daude Plaza zaharrean
5 harategi daude

Herrian

3 frontoi daude Frontoian
6 zubi daude ibaiaren gainean
5 jatetxe daude


EUSKARAREN EGUNA



A benduaren 3an euskararen eguna ospatu genuen. Egun horretan eta gela bakoitzean euskaraz hitz egiteko genituen arrazoietaz hitz egin genuen. Guztira 12 arrazoitan laburbildu genituen:

- 1 Euskarazko ipuin eta jolas politekin dibertitzeko
- 2 Jakin badakigulako eta lagunek ere, badakitelako
- 3 Euskarak egiten gaituelako euskaldun
- 4 Ahaztu egingo zaigulako
- 5 Hizkuntza zenbat eta gehiago ezagutu eta erabili, gehiago maitatzen delako
- 6 Euskara gal ez dadin
- 7 Guk erabiliz, gurasoek eta ez dakitenek ikasiko dutelako
- 8 Lan mundura hobeto prestaturik heltzeko
- 9 Ikasketak hobeto eta errazago menperatzeko
- 10 Bizi garen herriko hizkuntza delako
- 11 Hizkuntza polita delako
- 12 ETBko programekin hobeto pasatzeko

Arrazoi bakoitzean oinarrituz marrazkiak egin genituen eta urteko hilabete bati lotu. Material guzti honekin datorren urteko egutegi bat egin behar dugu.



Nola ospatzen dituzu gabonak?

Zer eskatu diozu Olentzero eta Mari Domingiri?

Markel Gil, 8 urte



Gabon gauean aitan familiariekin afaltzeko biltzen gara eta asko gustatzen jata. Wii-a eskatu dotset eta baita Tribiala euskeraz be. Gero gabonetako oporretan ekarri dostenekin jolasten dot.

Paula Arana, 8 urte



Zuhaitza jartzen dogu etxian eta familiariekin afaltzen dogu, 12 pertsona edo biltzen gara eta oso ondo pasatzen dot. Olentzero eta Mari Domingiri Nintendorako joku bat eskatu dotset eta panpin bat be bai.

Gu gabonak ospatzeko familia biltzen gara, 8 pertsona edo. Lehenengo afaldu egiten dogu eta gero telebista ikusten jartzen gara danak batera. Puzzle bat eskatu dotset, argazki batekin gero puzzlia egiten dana.

Cristina Abigail, 8 urte



Aittittan etxera juaten gara afaltzera eta Gabon Zahar gabian mahatsa jaten dogu. Nik ez dotset ezebe eskatu, beraiek nahi dabena ekartzia dake baina oparixak jasotzia asko gustatzen jata.

Manex Domingez, 8 urte



P.I.N.era irteera



Joan den astelehenean, abenduaren 15ean, 3. mailatik 6. maila arteko ikasle guztiak P.I.N.era irteera egin genuen. 3. mailakoentzat lehen aldia izan zen. Oso handia zen, haur asko geunden eta asko gustatu zitzaigun. Bertan, 3. mailakoak dantza ekitaldia egin genuen eta 4. mailakoak xirula jo zuten, artista bikainak garela erakutsi genuen. Ondoren jolasak, eskulanak, landareak landatu, blandi-blu egin, paperezko lanak, ... egin genituen eta primeran pasa genuen. Arratsaldeko 15:30etan bueltatu ginen, berri izultzeko asmoz. 🐸



ZER TRISTEN DOTSAZU?

Zein da zuretzat Soraluzen gertatutako urteko albisterik aipagarriena?

2008. urtea bere azkenetan da. Ehundaka izan dira herrian suertatu diren berriak, batzuk onak eta beste batzuk ez hain onak. Baina bada zer aipatu.

MARIA LUISA ARTOLAZABAL
Etxekoandrea



GILLERMO GARCIA
Gol-eko langilea



MARIA NOBOA
Etxekoandrea



ANJEL MENDIA
Jubilatua



Nik Sorako nesken futbol taldian sorre-ria aipatuko neuke. Izan be, momentuz jokaturakopartidu guztiak irabazi dittue eta hau oso berri pozgarria da herrixantzat. Gainera, uste dot sailkapenien leheneng- guak doiazela eta zorion- zeko modukua da.

Kiroldetiko obrak egi- tten zittuan enpre- sian kiebria aittatuko neuke nik. Denbora asko doiaz obra hori egin nahixan eta ondiok ez dabe amaittu. Herrixak ganorazko kiroldegixa bi- har dau eta hasi ziran obria dagueaneko amaittuta egon biharko zan.

Aurten umien danbo- Arradarako diru bil- ketia egitten hasi dala esan- go neban nik. Nagusixek ga- norazko danborradia dake eta umiena be politta izatia merezi dau. Neretzat hau da urte honetan egon dan ber- rikuntzarik haundixena.

Nik oin dala gutxi oi- hartzun haundixa eduki zeban berrixa aitta- tuko neuke, iruzurgiliana. Euskal Herriko hainbat he- rrixetan egin zittuan beriak eta Soraluzen be esaten da- nez. Berri honekin telebis- tia be hurbildu zan herrira eta hau ez da askotan pasa- tzen.

KOMIKIXA



Diseriuua eta Sormena

Poligono Amillaga, n° 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaleta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13


Revelphone taldea gaur lehiatuko da Danbakan



Gaur egingo da Danbaka lehiaketako azken kanporaketa eta lau talde lehiatuko dira **ESPALOIA KAFE ANTZOKIKO** taula gainean: Barua Banda (Eskoriatza), Tuesday Evenings (Durango), The Motherfuckers (Arrasate) eta Revelphone (Soraluze). Kontzertua, gabeko 22:30etan izango da Elgetako Kafe Antzokian eta sarrerak 5 euro balio du, (gazteak txartelarekin 3 euro). Goienako egoitzetan, Espaloian bertan edo **943 25 05 05** telefonora deituta eros daitezke.

Abesbatzaren Gabonetako Kontzertua urtarrilaren 3an Urtero moduan, arratsaldeko meza eta gero hasiko da Abesbatzaren kontzertua, eta egun batzuk lehenago, abenduaren 24ean, Zaharren Egoitzan ere abestuko dute.

Barne Barnetik Soraluze bideoaren aurkezpena



Abenduaren 23an, arratsaldeko 19:00etan herria deskribatzen duen bideoaren aurkezpena egingo dute Udaletxeko Saio Aretan. Salgai ere egongo da, 10 eurotan eta Udaletxean edo Iratxo goxodendan eros daiteke.

Haur eta gazteek badute zer egin Gabonetan

Gabonetarako, haur eta gazteentzat, aisialdi eskaintza zabala antolatu dute herriko hainbat eragilek (*Atxolin eta Keixeta Guraso Elkarteak, Pil-pileanek, Udalak eta Musika Eskolak*). Eguazteneko Musika Eskolako Gabonetako Kontzertuarekin hasi ziren ekitaldiak.

Eguaztenean umeak Olentzero eta Mari Domingiri abesten.



Astelehena, ABENDUAK 22

Arratsaldeko 17:00etan Liburutegiko aretoan
Haurrentzako antzerkia: Zuk-zuk
jaunaren alfabetoa

Asteartea, ABENDUAK 23

Arratsaldeko 17:00etan
Liburutegiko aretoan
Sun magoa

Asteazkena, ABENDUAK 24

Olentzero eta Mari Domingi txiki-
kiekin kalejira eta opari banaketa,
Plaza Barrixan.

Ostirala, ABENDUAK 26

Antzerkia: Arratsaldeko 17:00etan
Liburutegiko aretoan
Eibarko Pin-era irteera

Larunbata, ABENDUAK 27

Haur parkea
Goizeko 11:30etik 13:30era eta
arratsaldeko 16:00retatik
19:00etara kiroldegian.

Astelehena, ABENDUAK 29

Arratsaldeko 16:00etan Ludotekan
Eskulan tailerra
Txuri Urdinera patinatzeraz

Asteartea, ABENDUAK 30

Arratsaldeko 16:00etan Ludotekan
Eskulan tailerra
Bilboko Pin-era irteera
Txuri Urdinera irteera patinatzeraz

Asteazkena, ABENDUAK 31

Arratsaldeko 16:00etan Ludotekan
Eskulan tailerra

Ostirala, URTARRILAK 2

Arratsaldeko 17:00etan Kiroldegian
Pailazoak: Hipo eta Tomax

Larunbata, URTARRILAK 3

Haur parkea

Astelehena, URTARRILAK 5

Erregeen kabalgata

ARMENDIA
JATETXEA

Ezoz Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Mendi Taldeak egoitza berria izango du

A bendutik aurrera, Mendi Taldeak Pil-pileaneko lokalean hartuko du lekua. Erra-

bal kalean zuten lokala laga eta Gila gaineko lehenengo pisuan bilduko dira, eguazten eta egugetan, arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara. Lokal aldaketarekin batera, telefono berria ere izango dute: 943 75 13 04.

Federatzeko epea zabalik

Mendi Taldeko kideak hasiak dira federatzeko beharrezkoak diren datuak jaso eta karnetak berrizten, otsailaren bukaerara arte egongo da epea zabalik nahi duenarentzat, lehenago aipatutako ordutegian. ☺

Gabonetako Krosa abenduaren 31an

Hilaren 31an, eguazte-
na, San Silvestre Krosa egingodaherrian. Urteromoduan lagun artean, herriko kaleak zeharkatuko dituzte, 2008ari agur esan eta 2009ari ongi etorria emateko. Irteera, 16:30etan izango da Udaletxetik eta lau kilometro inguruko ibilbidea egingo dute.



EMAITZAK

PELOTA

Titin III – Laskurain	22
Berasaluze VIII – Beloki	21
Mtz de Irujo – Beroiz	22
Olazabal – Laskurain	19

FUTBOLA

Elgoibar – Sora (Erreg.N.)	1-3
Segura Goierri – Sora (Erreg.M.)	2-1
Aloña Mendi "B" - Sora (Kad)	5-2
Sora (Jub) – Ilintxa	1-0
Sora (Erreg.N.) – Aloña Mendi	8-1
Sora (Erreg.M.) – Bergara "B"	5-2
Sora (Kad) – Arizmendi	10-0
Bergara "B" – Sora (Jub)	2-1

AGENDA

PELOTA

Zapatua 20, 17:30etan

Zornotzan

Titin III – Laskurain

Xala – Eulate

Astelehena 22, 18:00etan

Arrasaten

Titin III – Laskurain

Xala – Pascual

Ostirala 19, Zumarragan

Eliteko finala

Renovales – Lopez

Jauregi – Gonzalo

FUTBOL

Zapatua 20, 17:30etan Martutenen

Amara Berri K.E. – Sora (Erreg)

Zapatua 20, 11:15etan Iraetan

Zestoa K.B. – Sora (Kad)



2008ko parte hartzaileak.

ARRANO

tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

Juan Mari

arraindegia

Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
T. 943 75 24 40

GAZTELUPE

taberna

tel: 943 75 20 81

TXURRUKA

JATETXEA

Txurruka auzoa
20590 SORALUZE

T. 943 75 15 81

ARGAZKI ZAHARRA



LAGUNARTEKO EGUNPASA

Argazki hau 1938ko uzatailan 26kua da, Luis Elorzak ekarritakua. Data honetan, Sorailuzen jaixak badira be Eibarren aterata dago, oin dala 70 urte. Bertan agertzen diranak hauexek dira:

Atzeko aldian, ezkerretik eskumara:

Antonio Aristi (*Antonio Polonio*),
Javier Garmendia eta Manolo Querejeta.

Aurreko aldian, ezkerretik eskumara:

Paco Ucin, Belen Maiztegi, Felisa Larreategi
eta Ramiro Larrañaga. 📷

Oroigarriak, eskelak, eskertzak...

Bidali aldizkaria@pilpilean.com helbidera
edo deitu 943 75 13 04 zenbakira